

# Euskal selekzioak Uruguain eta Argentinan joka dezake udan

Astearteko partiduko kirol balorazio baikorra egin dute; ez hainbeste, oster, zaleena

**E**uskal selekzioak Euskal Herriatik urrun joka ditzake hurrengo partiduak, Hego Amerikan hain zuzen ere, Uruguai eta Argentinako selekzioen aurka. Astearteko partiduen balorazioan, kirol arloko arrakasta goraitu da. Anoetara agertu zen zale kopuru txikiak, oster, ez ditu poztu antolatzaileak, eta aurrerantzean litekeena da partiduak San Mamesen jokatzeko.

Erredakzioa / Donostia

**EUSKAL SELEKZIOAK** Euskal Herriatik urrun joka ditzake lagunarteko hurrengo partiduak. Uruguaiako selekzioaren bisita aprobetxatuz, Euskadiko Futbol Federakuntza herri hartako selekzioari arduradunekin elkartu zen. Udan, jokalarien egutegi nekeza arintzean, Hegoamerikan partidu bat edo bi jokatzeko aukera aztertu zuten bi Federakuntzetako ordezkariak.

Zehaztasunik ez badago ere, litekeena da Euskal Selektzioak astebeteko epea igarotzea Hegoamerikan, eta han, Uruguai eta Argentinaren aurka jokatzeko, Uruguai bertan. Euskadiko Futbol Federakuntzako Juan Luis Larrea presidente ordeak esan duenez, «Uruguai gu hara joatea nahi du. Arazoa Uruguai urrutiko dagoela da eta horregatik, han astebeteko igarotzeko aukera azterten ari gara».

Kirol arloan balorazio guztiz



Andoni Zubizarreta atezain ohia omendu zuten astearteko partiduan.

EDURNE KOCH

baikorra egin dute partiduko antolatzaileek, izen handiko selekzioari jipoi handia eman zitzaizkion. Zaleen erantzunari dagokionez, oster, balorazio nahikoa ezkorra da. Anoetako harmailak nahikoa hutsik ikusi ziren, eta ondorioz, litekeena da Euskal Selektzioaren hurrengo partiduak San Mames zelaietan jokatzeko. Larreak lehen ardurak aurkakoa bilatzea dela esan du, baina Anoetan bildutako zalego kopuru txikiak bertan beste partituen bat jokatzeko aukera zailtzen duela azpimarratu zuten.

## 53.000 ikusle Montjuicen

**KATALUNIA-NIGERIA** partidua ikusteko 53.000 ikusle bildu ziren Montjuic estadioan. Kopuru horri partidua telebistaz ikusi zuten 1.400.000 ikusle gehitu behar zaizkio. Kataluniak aise gainditu zuen Nigeria —5-0—. Zoritxarrez, atzo mintzagai nagusia ez zen partidua izan, zenbait zalek Espainiako banderak erre izana baizik. Ekintza honek adierazpen polemikoak eragin zituen. CiU alderdiko

Joaquim Molinsek ekintza errefusatzen zuela esan zuen, «batzuetan *senyerak* ere erretzen dira» adieraziz.

Kataluniako Alderdi Popularrak, CiU Espainiako banderak erretzearen zeharkako eragile dela esan du. ERC alderdiko Gazte taldeak, oster, Jordi Pujol salatu dute, «zaleen gehiengoak kirol selekzio propioa izateko eskaerari kasu ez egiteagatik». X

## Ziganda: «Helburua lehen zortzien artean sailkatzea da»

«Egindakoa hobetzeko aukera dago, baina hobekuntza hori urteetan lan eginda iritsiko da», esan du aurrelariak

Agentziak / Iruñea

**OSASUNAKO** Jose Angel Ziganda aurrelariak Gabonak baino lehenago taldeak lortu duen hirugarren postua hobetzeko tarterik badagoela esan zuen atzo. Taxoaren egindako entrenamendu saio laburraren ostean: «Orain arte lortutakoa hobe dezakegu, baina urte askotan lan egin ondoren», ohartarazi zuen.

Zigandaren esanetan, hirugarren postua bikaina da, «pentsaezina denboraldi hasieran, baina gure jomuga lehen 8 sailkatuen artean egotea da». Larraintzako arentzat Sevilla, Merida, Compostela eta Las Palmas taldeek plantilla osatuagoak dituzte, «eta gu baino behar eta presio gehiago lehen mailara itzultzeko». Aurrelariak Osasuna oraindik osatzen ari den taldea dela nabar-

mentu zuen, «eta hala ere joko ona egiten ari gara».

Cesar Palacios kapitainak Osasunaren hirugarren postuak «helburu handiagotzen pentsatzeko arrazoia dira». Gorritxoaren taldean minutu guztiak jokatu dituen jokalaririk bakarra Osasuna Bigarren Mailan dagoenetik hirugarren postuan inoiz ez dela egon gogoratu zuen: «Hasieran ez gintuzten aintzat hartzen, baina

orain errespetu gehiago erakusten digute. Goiko taldeekin lehitzeko itxaropena daukagu».

Talde iruindarreko jokalariek, oporrak hartu zituzten atzo, 1998ko azken saioa burutu ondoren. Enrique Martin entrenatzaileak taldeak urtarrilaren lehen entrenamendua izango duela baieztatu zuen, goizez, Sportingean aurkako partidua prestatzeko. X

## Ziklo-krosa

**Euskadiko Ziklo-kros Txapelketa eta Gasteizko Nazioarteko proba aurkeztu dituzte**

Abenduaren 27an korrituko da lehena, eta urtarrilaren 3an bigarrena

Erredakzioa / Gasteiz

ATZO eguerdian aurkeztu zituzten Gasteizen Euskadiko Ziklo-kros Txapelketa eta Gasteizko Nazioarteko proba. Vital Kutzaren areto nagusian. Euskadiko Txapelketa abenduaren 27an korrituko da Gamarran, 2.500 metroko luzera duen zirkuituan. 150 karreristen partaidetza espero dute lasterketa antolatzaileek, Dulantziko Kirolari Gazteen Elkarteak.

Txapelketa goizeko 11etan hasiko da, kadeteen probarekin. Iberdrola taldeko Koldobika Agirre da faboritua kategorian honetan. Ondoren, Jubenilen txanda izango da. Garaipena Maioz eta Imanol Juezen artean erabakiko da ziurrenik. Azken proba (23 urtez azpikoak eta elite kategoriakoak) 12:00etan hasiko da, eta, bertan, David Seco busturiarra Igor Beristain gipuzkoarra garaitzeko helburuarekin abiatuko da. Beristainek sailkapen hobea lortu zuen Igorreko Nazioarteko proban.

Urtarrilaren 3an, aldi berean Gasteizko Nazioarteko Proba korrituko da. Antolatzaileek bi txirrindulari frantziar eta txekiar bat ekartzeko asmoa dutela jakinarazi zuten, baina ez zuten izenik eman, oraindik ez dutelako erabateko zehaztasunik. Proba hau ez da Gamarrako zirkuituan egingo, Mitxelingoan baizik, 2.600 metroko luzera du, eta Arabako Fernando de Luis ziklo-kros selekzionatzailearen esanetan, «Gamarrakoa baino mantsoagoa da».

Dulantziko Kirolari Gazteen Elkarteak Carmelo Musitu arduradunak proba honek garrantzi handia izango duela esan zuen, «Galizian korrituko den Espainiako txapelketaren aurretik korrituko den azkenetako proba izango delako». Atzerritik etorritako diren txirrindulariez gain, egun Espainiako Txapelketa den Juan Francisco Pla valentziarra, Pereiro galiziarra eta Seco eta Beristain euskaldunak jardungo dute. X

**Ciclos y Caravanas**  
**Oiartzun**

Lehen mailako markak paregabeko prezioekin

Handizkako zentroa, 9 - OIARTZUN - Tel.: 943 49 22 84 ALCAMPO MAMUTetik pasatu ondoren 2. bidegurutzea eskuinean, Astigarragako norabidean

MTB 26", helduentzat, 18 abiad. aluminiozko jantak

Tarifako pr. Eskaintza  
26.800 16.990

Eski galtza beroak, jostura termozigilatua  
Tarifako pr. 7.980 Eskaintza 3.900

Snow Galtzak

Tarifako pr. 9.700 Eskaintza 4.850

Snow taula, kalitate handikoa (zurezkoa), loturarekin 39.900

Ordutegia:  
Astelehenean larunbetea  
10.00etatik 14.00ak arte  
eta 16.00etatik 21.00ak arte